

Jon Irazusta Astiazaran

Fisiologoa



“Errazagoa da teknologian aurreratzea gizartean baino”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Donostian jaioa, 1964an, Biologian lizentziatu eta doktoratu zen, EHU. Irakaslea da Medikuntza eta Fisioterapiako graduetan, eta Ikerketa Biomedikoa eta Zahartze Osasungarria eta Bizi Kalitatea masterretan. Hain zuzen, azken master horren sustatzailea eta lehen zuzendaria izan zen. Zelulen arteko komunikazioa eta ariketa fisikoaren fisiologia izan ditu ikerketa-gai nagusiak. Azken urteetan, [zahartze osasungarrian](#) jarri du arreta, eta AgeingOn taldeko arduraduna da. *Elhuyar* aldizkariak egindako galderei emandako erantzunetan ere nabarmenak dira arlo desberdinak nahasteko duen interesa eta osasunarekiko kezka.

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Harritu nauten ekarpen asko egon dira, eta zaila egiten zait bat hautatzea. Zalantzarik gabe, oso nabarmenak izan dira Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiararen arloan izan diren aurrerapenak, biologia molekularrean, fisikan...

Bakarra aukeratu beharrean, azpimarratuko nuke zer garrantzitsua den diziplinartekotasuna. Hau da, nola arlo desberdinetako pertsonak elkartuta, oso ekarpen esanguratsuak egin ditzaketen. Adibidez, adimen artifiziala erabilita, aminoazidoak jakinda, proteinaren egitura aurreikustera iritsi dira. Lorpen horrek aurrerapen nabariak ekar ditzake etorkizuneari bizitzaren eta osasunaren zientzietan.

Eta zenbat eta arlo desberdinagoak izan, orduan eta aberatsagoa da elkarlana. Hori bai, ez da batere erraza: batetik, bataren eta bestearen hizkuntzak desberdinak izaten direlako, eta, bestetik, disziplina desberdinetako zientzialarien helburuak ere desberdinak izan daitezkeelako, eta, zenbaitetan, helburuetako bat atzean utzi behar da. Arloetako batek soilik dakiena aplikatu behar du, beste arloan aurrerapena lortzeko. Estatistikarekin edo beste teknologia batzuekin asko gertatzen da.

Bestalde, errazagoa da teknologian aurreratzea gizartean baino. Pandemian oso garbi ikusi dugu hori: txertoak oso azkar lortu dira, eta oso txerto onak, baina gizarte mailan ezin da esan askorik aldatu garenik. Arlo psikologikoan, harremanetan, soziologian... zailagoa da eboluzionatzea teknologian baino.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke?

Gauza askorena! Baina ateratzen zaidan lehena, eta ez dakit familia-kontuengatik oso baldintzatuta na-goelako ote den, minbiziaren kontrako tratamendu on bat lortzea da. Sendatzeko gai ez bada, gutxienez, bizi-kalitate onarekin kroniko bihurtuko duena. Jakina, ez da nire familian bakarrik; gure inguruan kasu ugari daude, eta bereziki mingarriak iruditzen zaizkit umeenak. Aipatzeko da asko aurreratu dela arlo horretan. Duela gutxi irakurri nuen % 85ek aurrera egiten duela, eta hori oso berri ona da, baina, % 100era iritsiko bagina, are hobea litzateke. Iraultza horren lekuko izan nahiko nuke: sufrimendu hori arinduko edo ezabatuko duen terapia eraginkor bat lortu dela.

Eta bestea antzekoa da, baina alzhemerrarekin lotua dago. Hori ere egoera pertsonalarekin lotzen da, eta prebentzioan eta tratamenduan aurrerapau-soak ematea lortuko balitz... ●